

k u l t u r a l e i h o a


ezagutzen al
duzu
Donostia?

Txipres

San Marko -honela deitzen dute bertako al-tzatar adintsuek- mendiaren hegalean eta Oretako udal-dermiotik ez oso urrun etxe zahar, karratu eta eder bat dago. Txipresen edertasuna bere lau horma tinkoetan eta bere ojiba formako lehio paregabeetan datza. Zaharrei beti entzun izan diet jentilek egina dela Txipres. Ez da horrela, baina zalantzarik gabe Gipuzkoako baserri zaharrenetako baten aurrean gaude. Eraikuntza ereduari dagokionez, XV. mendearen bukaeran eraikitako etxea da Txipres.

Baserri honetan San Jeronimoren irudi bat gordetzen da. Irudi hau lehen Madalena deitzen zen -eta gaur San Marko deitzen da- mendiaren puntan zegoen ermita batetik jeitsia dela dirudi. San Jeronimo Madalenaren kidea da eta elkarrekin azaltzen dira aldarrean. Aspalditik eraiki nahi izan diote Txipresko baserriarrek San Jeronimori ermita bat, baina ez dute oraindik lortu, oso gutxi baitira. Altzatar euskaldunentzat ideia polita izan daiteke hau burutzea.

JOSU TELLARIDE



Roxali

Txipresko
dorre-
etxea.
Mendebald
eko
lehioak eta
«atea».

Donostiako kantutegia



J.I. ANSOAENA proposatua

Ai hori begi ederra!

1
Ai, hori begi ederra!
iduritzen zait eperra,
gauza hoberikan zer da?
oinxo polita,
zapata eder,
txorkatila hain berdina
jantzi ederki egina,
oihal modako fina,
ai neretzako bazina!

2

Ai, hau penaren haundia,
neretzat txit hilgarria,
orain hartu deberia.
Bestek eraman
duela nere
maitetxo maitagarria.
Baldin hau bada egia,
ni naiz urrikagarria,
ilunduko zait begia.

Nork eginak hitzak edo musika ez dut jakin ahal izan. Baina Donostian oso kantatuak izan dira. Emakumearen gorputzari egiten dion azterketa harrigarria zaigu: oma, zapata, txorkatila. Garai hartan ibilkerari ematen zitzaion garrantziaren adibidea.

OHARRA: Irutxuloko azkeneko alean Goizean sartu tabernara bertsoari buruz honela amaitu nuen: «Egilearen arrastorik ez». Nik ez, baina zuenik bazen. Ramon Artola (1831-1906) da Sagardoari izenburu duen bertso sailaren egilea eta hona ekarri nuena sail horren bigarrena da, hitz bat edo beste aldatuta. Antonio Zavalak Auspoo sailari, Sagardoaren graziya izena duen liburu batekin eman zion abiada 1961. urtean eta bertan egile beraren beste bertso askorekin batera horiek ere biltzen ziren. Ramon Artola tolosarra zen jaiotzez, baina Donostiara etorria eta Pepe Artola ospetsuaren aita. Beste behin, Ilunabarra kanta zela eta aipatu nuen bere izena. Zuzenketa honen datuak Ramon birraitona zuen Koldo Artola euskaltzale finari zor dizkiot. Mila esker.